

ARANGOITI ARANGOITI ARANGOITI

Auzoa hiriaren ipar-ekialdean dago Banderas Mendiaren hegaletako ordoki batean. Deustuko, 1. Barrutiko, auzo garaiena (223 m), txikiena (0,13 km²) eta biztanle gutxienekoa (4.260 biz.) da. 50ko hamarkadan eraikitzen hasi zen Bilbora, batez ere Extremaduratik, lan egitera heltzen ziren migratzaileez arduratzeko. Lehen eremu natural bat zen zeinean iturburu preziatu bat, Miramar Jauregia, kaputxinoen komentu bat eta 8 bat baserri zeuden (horietako bat, Agirre Baserria, auzo-etxea da gaur egun). 1967an Arangoitiko Auzo Elkartea sortu zen, hirian auzoko baldintzak eta mantentze-lanak hobetzea (azpiegiturak mantentzea, etxebizitza egokitzea, etab.) eskatu zuen lehenetako bat izan zena eta oraindik gogotsuenetako bat dena.

ARANGOTI ARANGOTI ARANGOTI ARANGOTI



-tik-ra

- Bizi propioa duen auzoa da, izaera bereko herri autonomoa balitz bezala. Auzo-bizitza dinamikoa eta alaia laguntzen duten saltoki eta azpiegitura batzuk ditu.
- Zenbait eraikuntza bereizgarrik osatzen dute: Virgen del Pinar Etxetaldea, Uraliten etxeak, ur-andel biribil oso handia, hainbat hamarkadetako BOEko zenbait eraikin eta Deustutik bereizten duen ezponda.
- Autoz Araneko kaleaz baino ezin da heldu. Aparkatzeko leku faltari aurre egiteko aparkaleku handi bat eraiki da, auzoko gainazalaren bosten bat hartzen duena, baina ez da nahikoa. Auzoko kale gehienek Bizkaiako mendien izenak dituzte (Ganekogorta, Jata, Ganeta, Gorbeia).
- Hiriko Eraztun Berdera sarbidetako bat da, Banderas mendira bidean auzoa zeharkatzen duten oinezko kopurua azaltzen duena.
- Auzoko txoko sekretuenetako batean etxe bat ezkutatzen da kalekatuentzat. Mihi gaiztoek diote auzoetan dabilzan karraskari-izugarriak kontrolatzeko dela.
- Bere kokapenari esker hiri gaineko begiratoki pribilegiatua da. Agian horregatik dago auzoan argazkilaritzatarako zaletasun handia, elkartearen web orriak erakusten duen bezala.

